



SEGURAKO UDALA

SEGURAKO UDALA

Iragarkia

Arauzko jendaurreko informazio epea iragan denez batere erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe, behin-betikotzat jo dira Udal Batzarrak 2017ko urriaren 19an hartutako hasierako erabakiak, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzak finkatu eta aldatzekoak, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldatutako testuak honakoak izanik:

- Udal eskumeneko zerbitzuak prestatu eta iharduerak egiteagatiko Tasa.

Ordenantza arautzaileko eranskinaren epigrafeetatik ondorengo kuotak edo tipoak aldatzen dira:

***- Zaborrak etxez-etxe biltzeagatiko tasa:**

Okupatutako Etxebizitzak.....	143,41 €.
Hutsik dauden etxebizitzak.....	100,14 €.
Baserriak	114,99 €.
Tabernak.....	348,85 €.
Merkataritza.....	174,42 €.
Jatetxeak.....	479,34 €.
Tailerrak: 20 langile arte.....	383,73 €.
Tailerrak: 20 langile baino gehiago.....	500,01 €.
San Juan Egoitza.....	723,32 €.

Aldatutako Ordenantza eta Eranskinen gainerako hitz baketak 1989ko abenduaren 30eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren, eta hemen aipatutzat jotzen dira, osorik hartuta bailiren, alegia.

Hau guztia, Gipuzkoako Ogasun Lokalak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.4 artikulua agindutakoa betez argitaratzen da, guztion jakinerako eta artikulua horretan aurreikusten diren gainerako ondorioetarako.

Foru Arau horren 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, tasa, kuota, tarifa eta Ordenantzetan egindako finkatze eta aldaketak onartzen dituzten erabaki horien kontra interesatuek tarte jarri ahal izango dute errekurtsio kontentzioso-administratiboa Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabetetako epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Horren kalterik gabe eta aipatu artikulua emandako baimenarekin bat, interesatuek jarri ahal izango dute, hala nahi badute eta bide kontentzioso-administratiboa hartu aurretik, Gipuzkoako Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurreko erreklamazioa, horretarako hilabeteko epea dutelarik, argitalpen horiek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunaren biharamunetik hasita.

Segura, 2017ko abenduak 11.- ALKATEAK.